**- Onartzea** Alkateak (O.E.BILDU) **Gurutze Gorria**ri buruz eginiko proposamena (aldatua), akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

---------------

**Gipuzkoa Garraioko Lurralde Agintaritza.**

Alkateak (O.E.BILDU) **Gipuzkoa Garraioko Lurralde Agintaritza**ri (1) buruz eginiko proposamena (aldatua) bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 19 botorekin (O.E. BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV eta Errenteriako Ezkerra) eta 2 abstentzioz

***A C U E R D A***

**- Aprobar** la propuesta presentada (ya modificada) por el Alcalde (O.E.BILDU) relativa al **Parke Natural de Aiako Harria,** que queda reflejada en la parte expositiva del presente acuerdo.

**------------------**

**Cruz Roja**

Sometida a votación la propuesta presentada por el Alcalde (O.E.BILDU) relativa a la **Cruz Roja.**

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 19 votos a favor (O.E. BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y Errenteriako Ezkerra) y 2 abstenciones (PP)

***A C U E R D A***

**- Aprobar** la propuesta presentada por el Alcalde (O.E.BILDU) relativa a la **Cruz Roja.**

**-------------------**

**Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.**

Sometida a votación la propuesta presentada por el Alcalde (O.E.BILDU) relativa a la **Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa: 1.**

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 19 votos a favor (O.E. BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV y Errenteriako Ezkerra)



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

(PP),

**E R A B A K I D U**

- **Onartzea** Alkateak (O.E.BILDU) **Gipuzkoa Garraioko Lurralde Agintaritza**ri buruz eginiko proposamena (1).

---------------

Aldaketekin aurkezturiko mozioa eta bozkaturiko proposamen alternatiboak kontuan izanik.

Udalbatzak, azalpen-zatian adierazitako puntu bakoitzari buruz emaniko botoen arabera

**E R A B A K I D U**

Ondoko izendapenak egitea:

**San Marko Mankomunitatean**

<u>Bokalak</u>:

- Maite Peña Lopez

- Juan Carlos Merino Gonzalez

<u>Ordezko bokalak</u>:

- Jose Ignacio Irastorza Garcia, Maite Peña Lopezen ordezkoa.

- Joseba Etxarte Martin, Juan Carlos Merino Gozalezen ordezkoa.

y 2 abstenciones (PP)

***A C U E R D A***

- **Aprobar** la propuesta presentada por el Alcalde (O.E.BILDU) relativa a la **Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa: 1.**

**-----------------**

Vista la moción presentada con las modificaciones y las propuestas alternativas sometidas a votación.

El Pleno de la Corporación, con los votos emitidos respecto de cada uno de los puntos reflejados en la parte expositiva

**A C U E R D A**

Efectuar los siguientes nombramientos:

**Mancomunidad de San Marcos**:

<u>Vocales</u>:

- Maite Peña López

- Juan Carlos Merino González

<u>Vocales Suplentes</u>:

- José Ignacio Irastorza García suplente de Maite Peña López.

- Joseba Etxarte Martín, suplente de Juan Carlos Merino González.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**Añarbe Mankomunitatean**

*Bokalak:*

- Joseba Etxarte Martin

- Joaquin Acosta Pacheco

*Ordezko bokalak:*

- Juan Carlos Merino Gonzalez, Joseba Etxarte Martinen ordezkoa.

- Mª Angeles Machin Rodriguez, Joaquin Acosta Pachecoren ordezkoa.

**Central Hidroeléctrica de Rentería, S.A.n:**

*Bokalak:*

- Julen Mendoza Perez

- Jon Txasko Orgilles

*Ordezko bokalak:*

- Alazne Korta Zulaika

- Garazi López de Etxezarreta

**Oarsoaldea, S.A.n:**

- Asier Mujika Etxaniz.

**Zinemaldea, S.A.n:**

- Asier Mujika Etxaniz.

**Mancomunidad del Añarbe**:

*Vocales:*

- Joseba Etxarte Martín

- Joaquín Acosta Pacheco

*Vocales Suplentes:*

- Juan Carlos Merino González, suplente de Joseba Etxarte Martín

- Mª Ángeles Machín Rodríguez, suplente de Joaquín Acosta Pacheco

**Central Hidroeléctrica de Rentería, S.A.:**

*Vocales:*

- Julen Mendoza Pérez

- Jon Txasko Orgilles

*Vocales Suplentes:*

- Alazne Korta Zulaika

- Garazi López de Etxezarreta

**Oarsoaldea, S.A.:**

- Asier Mujika Etxaniz

**Zinemaldea, S.A.:**

- Asier Mujika Etxaniz



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**ERESBIL Musika-artxiboaren patronatuan:**

- Julen Mendoza Perez
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi

**Pasaiako Portu-agintaritzan:**

- Maite Peña Lopez.

Ordezkoa: Marta Barea Juaristi.

**Behemendi Mendi Elkartean: 1**

- Jose Manuel Ferradas Freijo

**Aiako Harria Natura Gunean: 1**

- Jose Manuel Ferradas Freijo

**Gurutze Gorrian: 1**

- Jon Txasko Orgilles

**Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan: 1**

- Julen Mendoza Perez
- Ordezkoa: Luis Maria Diez Gabilondo.

**Patronato Archivo Musical Provincial "ERESBIL":**

- Julen Mendoza Pérez
- Garazi López de Etxezarreta Auzmendi

**Autoridad Portuaria de Pasajes:**

- Maite Peña López
- Suplente: Marta Barea Juaristi

**Asociación de Montaña Behemendi: 1**

- José Manuel Ferradás Freijo

**Parke Natural de Aiako Harria: 1**

- José Manuel Ferradás Freijo

**Cruz Roja**: 1

- Jon Txasko Orgilles

**Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa: 1**

- Julen Mendoza Pérez
- Suplente: Luis María Díez Gabilondo

**4. Alkatetzaren mozioa, Udalbatzak organo kolegiatu eta patronatuetan izango dituen ordezkariak izendatzeari buruzkoa.**

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan

**4.- Moción de Alcaldía sobre nombramiento de representantes de la Corporación en Organismos y patronatos.**

* Toma la palabra el Alcalde, Sr. Mendoza



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

du gai hau bertan behera geratzen dela, hain zuzen aldaketa bat egin dutelako. Horrela, Kirol Patronatuko buru Garazi andrearen ordez Ferradas jauna izango da. Hala ere, lanak aurreratzearren talde bakoitzak ordezkariak izendatu behar dituela, gaineratu du.

(O.E. BILDU) y dice en euskera que no se va a tratar este tema debido a que ha habido una modificación. Así, la presidencia del Patronato de Deportes estará en manos del Sr. Ferradás en lugar de Garazi. Añade que, para adelantar el tema, es conveniente que cada grupo designe su representante.

**5. Alkateak ondorengo gaiei buruz hartutako erabakien berri ematea:**

**Alkateordeak izendatzeko.**

**Alkatearen ordezkoak izendatzeko.**

**Gobernu Batzarraren eraketa eta eskumenak eskualdatzeko.**

**5.- Conocimiento de las resoluciones del Alcalde en materia de:**
**Nombramientos de Tenientes de Alcalde.**
**Delegados de Alcalde**
**Constitución de la Junta de Gobierno y delegación de competencias.**

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) ondorengo aldaketaren berri eman du: lehenengo proposamenean Unai Unsuain Elvira Gobernu Batzordeko partaide azaltzen zela, baina orain, haren lekua Jose Manuel Ferradas jaunak hartuko duela.

* Toma la palabra el Alcalde, Sr. Mendoza (O.E. BILDU) y advierte que hay la siguiente modificación: que en la primera propuesta Unai Unsuain Elvira figuraba como miembro de Comisión de Gobierno, pero que ahora será José Manuel Ferradás.

Jarraian, Alkatetzaren ondoko dekretuen berri eman da:

A continuación se da cuenta de los siguientes Decretos de Alcaldía:

“Udal Hauteskundeak maiatzaren 22an egin zirenez, eta ondoren Udalbatza berria eratu, orain beharrezkoa da udal antolaketa berria abian jartzeko, besteak beste, Gobernu Batzarra eratzea, hain zuzen 7/1985 Legearen, apirilaren 2koa, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituena, 4.1.a artikuluak erakunde honi auto-antolatzeko ematen dion ahalmena baliatuta.

“Una vez celebradas las Elecciones Locales el pasado día 22 de mayo, y constituido el nuevo Ayuntamiento, resulta necesario proceder al establecimiento de la nueva organización municipal y, en particular, a la constitución de la Junta de Gobierno, en ejercicio de la potestad de autoorganización que el artículo 4.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, reconoce a esta Entidad.

Lege horren 20.1.b eta 23. artikuluetan xedatutakoaren arabera, udalerri honetan Gobernu Batzarra eratu behar da 5.000 biztanle baino gehiago

Considerando que, de conformidad con lo dispuesto por los artículos 20.1.b) y 23 de la citada Ley, en este Municipio es obligatoria la constitución


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

dituelako.

de la Junta de Gobierno, por tener una población de derecho superior a 5.000 habitantes.

Udal Araudi Organikoaren laugarren tituluan ezarritakoa kontuan izanik,

Considerando lo establecido en el Título cuarto del Reglamento Orgánico Municipal.

Alkatetza honek, aitatu legeriak ematen dizkidan eskumenak baliatuta,

Esta Alcaldía, en uso de las atribuciones que me confiere la legislación citada,

**ERABAKI DU**

**HE RESUELTO**

**Lehenengo.** Gobernu Batzarra eratzea, izaera erabakigarria izango duen organo kolegiatua. Berori Alkateak eta lau zinegotzik osatuko dute.

**Primero.-** Constituir la Junta de Gobierno, órgano colegiado municipal de carácter resolutorio, que quedará integrada por los miembros siguientes: el Alcalde y seis vocales.

Gobernu Batzarreko zinegotziak ondorengo hauexek izango dira:

Luis Maria Diez Gabilondo
Miren Alazne Korta Zulaika
Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
Irune Balenciaga Arrese
Jon Txasko Orgilles
Unai Unsuain Elvira

Nombrar miembros de la Junta de Gobierno a los siguientes concejales:

Luis María Díez Gabilondo
Miren Alazne Korta Zulaika
Garazi López de Etxezarreta Auzmendi
Irune Balenziaga Arrese
Jon Txasko Orgilles
Unai Unsuain Elvira

**Bigarren.** Gobernu Batzarrak, Alkateak delegatuta, ondoko eskumenak izango ditu bere gain:

**Segundo.-** La Junta de Gobierno, ostentará, por delegación de esta Alcaldía, las competencias siguientes:

**1. HIRIGINTZA ARLOAN.**

**1.-EN MATERIA DE URBANISMO**

Onartuko ditu Udalbatzari espreski esleitu gabeko Plan Orokorraren plangintza-garapenaren eta hirigintza-kudeaketaren baliabideak, baita hirigintza-kudeaketako baliabideak eta hirigintza-proiektuak ere (Toki Araubide Oinarriak onartzen dituen Legearen 21.1. j artikulua).

Las aprobaciones de los Instrumentos de Planeamiento de Desarrollo del Planeamiento General y de Gestión Urbanística no expresamente atribuidas al Pleno, así como la aprobación definitiva de los instrumentos de gestión urbanística y de los proyectos de urbanización. (art. 21.1. j) de la Ley Reguladora de Bases del Régimen Local.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Era berean, eskumena izango du eraikuntzako lizentziak eta sailkaturiko jarduerarako lizentziak emateko.

Asimismo ostentará la competencia de otorgamiento de licencias de edificación así como las licencias de actividades clasificadas.

**2. LANGILERIA ARLOAN.**

**2.- EN MATERIA DE PERSONAL**

Onartuko ditu lan eskaintza publikoa eta lanpostuak betetzeko lehiaketak arautuko dituzten hautaketa-probak eta oinarriak.

Aprobar la oferta de empleo público y las bases de las pruebas para la selección del personal y para los concursos de provisión de puestos de trabajo.

**3. ONDASUNEN ARLOAN.**

**3.- EN MATERIA DE BIENES**

- 120.000 € baino gehiagoko urte anitzeko edo urteko ondare-emakidak.
- 120.000 € baino gehiagoko ondare-erosketak.
- 120.000 € baino gehiagoko ondare-salmentak Aurrekontuan aurreikusiak izanez gero.
- 120.000 € baino gehiagoko ondasun-higigarrien salmentak.

- Concesiones de bienes plurianuales o anuales de más de 120.000 Euros.
- Adquisiciones de bienes superiores a 120.000 Euros.
- Enajenaciones de bienes previstas en Presupuesto de más de 120.000 Euros.
- Enajenaciones de bienes muebles de más de 120.000 Euros.

**4. KONTRATAZIO ARLOAN.**

**4.- EN MATERIA DE CONTRATACION**

- Egin ahal izango ditu obra-kontratuak, horniketakoak, zerbitzu publikoak kudeatzekoak, administrazio berezikoak eta indarrean dagoen legeriaren arabera Alkatetzari esleitzea dagozkion kontratu pribatuak. Horrez gain, udal ondareen inguruko emakidak esleitu eta ondare higiezinak erdietsi, hala nola ondare-legeriapeko eskubideak eta ondareak, oro har, saldu balioagatik Alkateari baldin badagozkio.

- La adjudicación de los contratos de obras, de suministro, de servicios, de gestión de servicios públicos, administrativos especiales, y los contratos privados que corresponda a la Alcaldía según la legislación vigente, así como la adjudicación de las concesiones sobre los bienes municipales y la adquisición de bienes inmuebles y derechos sujetos a la legislación patrimonial y enajenación del patrimonio en general cuando por su valor corresponda al Alcalde y superen las cantidades mencionadas anteriormente.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Obra-amaieren likidazioak onartu baldin eta horien kontratazioa baldin bazegokion, baita besteen berri jakin ere (TAOLren 21.1 artikulua).

- Aprobación de las liquidaciones finales de obras cuya contratación le corresponda, y conocimiento de las demás (Art. 21.1 f) de la LRBRL).

**5. BESTELAKOAK**

**5.- OTROS**

- Onartuko ditu, halaber, dirua irabaztea xede ez duten elkarteen inskribapena Elkarteen Udal Erregistroan.

- Aprobar la inscripción de asociaciones en el Registro Municipal de Asociaciones sin ánimo de lucro.

- Aurrekoaz gainera Udalbatzak delega diezazkiokeen beste edozein eskumen.

- Todo lo anterior sin perjuicio de cualquiera otra competencia que pueda serle delegada por el Pleno Municipal.

**Hirugarren**. Erabaki honen berri ematea dagokien zinegotziei eta udal zerbitzu ezberdinetako buruei, jakin dezaten eta bidezko ondorioak sor ditzan.

**Tercero.-** Comunicar esta resolución a todos los Concejales afectados y a los Jefes de los diferentes Servicios Municipales, para su conocimiento y efectos.

**Laugarren.** Erabaki honen berri ematea, halaber, Udalbatzari Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren 38. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko deituko den osoko bilkuran. Era berean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea".

**Cuarto.-** Dar cuenta al Pleno de esta resolución, en la sesión que se convoque para dar cumplimiento a lo previsto por el artículo 38 de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales. Asimismo proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

---------------

**-----------------------**

"Udal Hauteskundeak maiatzaren 22an egin zirenez, eta ondoren Udalbatza berria eratu, orain beharrezkoa da udal antolaketa berria abian jartzeko, besteak beste, Alkateordeak izendatzea.

"Una vez celebradas las Elecciones Locales el pasado 22 de mayo, y constituido el nuevo Ayuntamiento, resulta necesario proceder al establecimiento de la nueva organización municipal, y, en particular, a la designación de los Tenientes de Alcalde.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko

Considerando que de conformidad con lo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Araubide Oinarriak arautzen dituena, 23.3 artikuluan xedatutakoa, Alkateordeak izendatzeko eskumena Alkatearena da, Gobernu Batzarreko partaideen artean, dekretu bidez izendatuko duena.

dispuesto por los artículos 23.3, de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la designación de los Tenientes de Alcalde es competencia de esta Alcaldía, quien deberá proceder a su nombramiento, mediante Decreto, de entre los miembros de la Junta de Gobierno.

Alkatetza honek, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak baliatuta, urte honetako ekainaren 21ean, Gobernu Batzarreko ondorengo partaideak izendatu ditu.

Considerando que esta Alcaldía, en uso de las competencias que le otorga la legislación vigente, en fecha de 21 de junio del presente año, ha procedido a la designación de los miembros de la Junta de Gobierno.

Horregatik, Alkatetza honek, lehen aitaturiko legeriak ematen dizkion eskumenak baliatuta,

Por todo ello, esta Alcaldía, en uso de las atribuciones que me confiere la legislación anteriormente mencionada.

**E R A B A K I  D U**

**HE RESUELTO**

**Lehenengo.** Udal honetako alkateordeak izendatzea, hots, Gobernu Batzarreko partaideetatik ondorengo zinegotziak:

Luis Maria Diez Gabilondo, lehenengo alkateordea;
Miren Alazne Korta Zulaika, bigarren alkateordea eta
Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi, hirugarren alkateordea.

**Primero.** Nombrar Tenientes de Alcalde de este Ayuntamiento, con efectos del día de hoy, a los Concejales miembros de la Junta de Gobierno que a continuación se relacionan:

Luis María Díez Gabilondo, primer Teniente Alcalde;
Miren Alazne Korta Zulaika, segundo Teniente Alcalde y
Garazi López de Etxezarreta Auzmendi, tercer Teniente Alcalde.

**Bigarren.** Alkatea absente, kanpoan edo gaixorik egongo balitz, indarrean dagoen legeriak aitortzen dizkidan ahalmen eta eskumenak, bereziki bankuetako ordain-beharrak baimentzekoei buruzko agindu-emateak, alkateordeek egingo dituzte, beti ere ezarritako ordenaren arabera:

**Segundo.** Establecer que en caso de ausencia, vacante o enfermedad de esta Alcaldía, las atribuciones y competencias que me reconoce la legislación vigente, y, en especial la ordenación de pagos y la autorización de talones bancarios, serán realizadas por los Tenientes de Alcalde por el orden establecido.

**Hirugarren.** Afera hauen inguruan Alkateak herritik irten beharko balu, dekretu bidez adieraziko du absentziaren iraupena eta bere eskumenak bere gain hartuko dituen Alkateordea izendatuko du.

**Tercero.** A estos efectos, esta Alcaldía, cuando tenga que ausentarse del término municipal, establecerá, mediante Decreto, la duración de su ausencia, designando al Teniente de Alcalde que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

tenga que asumir sus competencias.

Ordezkapen hau ez balitz espresuki egingo, Alkatea lehenengo Alkateordeak ordezkatuko luke, eta hura ere ez balitz egongo, bertan egongo litzatekeen bigarren Alkateorderen batek. Alabaina, horren berri eman beharko zaie gainontzeko udalbatzarkideei, eta egun berean, jarduneko Alkate gisa, ezin izango du jardun berorietako bakar batek baino.

De no conferirse esta delegación expresamente, esta Alcaldía será sustituida por el Primer Teniente de Alcalde, y, en su defecto, por cualquiera de los otros Tenientes de Alcalde establecidos en segundo lugar que se encuentren presentes, que deberán dar cuenta de ello al resto de la Corporación, sin que durante el mismo día pueda actuar como Alcalde Accidental más de uno de ellos.

**Laugarren**. Dekretu honen berri emango zaie alkateordeei. Gainera, bertan adieraziko zaie jarduneko Alkate gisa buruturiko ekintzen berri Alkateari jakinarazi beharko dietela eta ezin izango dutela Alkate honek lehendik eginiko ordezkaritzak aldatu edo ordezkapen berririk egin.

**Cuarto.** Comunicar este Decreto a los Tenientes de Alcalde afectados, haciéndoles constar que tendrán que mantener informada a esta Alcaldía del ejercicio de sus atribuciones como Alcalde accidental, no pudiendo en el citado ejercicio, ni modificar las delegaciones ya efectuadas por esta Alcaldía con anterioridad, ni otorgar otras nuevas.

**Bosgarren.** Erabaki honen berri ematea Udalbatzari honek egingo duen lehenengo ezohiko osoko bilkuran, hain zuzen Toki-erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren 38. artikuluak dionari jarraiki".

**Quinto.** Dar cuenta al Pleno del Ayuntamiento de esta resolución en la sesión extraordinaria que se convoque, en cumplimiento de lo previsto por el artículo 38 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

-------------------

-------------------

"Maiatzaren 22an udal hauteskundeak egin ondoren eta Udalbatza berria eratu ostean, Udalaren jarduera lehenbailehen abian jartzeko xedez, Alkate honek bidezkoa ikusi du, beti ere apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituena, 21.3 eta 23.4 artikuluek emaniko eskumenak baliatuta —apirilaren 21eko 11/1999 Legeak berorri emaniko idazketa berriaren arabera eta bat datorren gainontzeko legeria kontuan izanik—, ondorengo zinegotziak izendatzea jarraian adieraziko diren eginkizunak burutzeko.

"Una vez celebradas las Elecciones Locales el pasado día 22 de mayo, constituido el nuevo Ayuntamiento, y con el objeto de dotar de una mayor celeridad y eficacia a la actuación municipal, esta Alcaldía, en uso de las facultades que le confieren los artículos 21.3 y 23.4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en la nueva redacción dada a la misma por la Ley 11/1999, de 21 de abril, y demás legislación concordante, considera necesario proceder al establecimiento de un régimen de delegaciones de competencias a favor de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

los miembros de la Corporación que se citan.

Kontuan izanik lehen aitaturiko legeriaren arabera, Alkatetza honek eskuordetu ditzake Tokiko Araubide-oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluak —egungo idazketaren arabera—eta 30/1992 Legearen 13. artikuluak, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoa, aurreikusi gabeko eskumenak, hain zuzen horietan arautzen direlako eskuordetu ezin litezkeen eskumenak.

Considerando que de conformidad con la legislación a la que se ha hecho referencia anteriormente, esta Alcaldía puede delegar el ejercicio de sus atribuciones siempre y cuando no se encuentren dentro de los supuestos previstos por el artículo 21.3 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en su redacción actual, y por el artículo 13 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la nueva redacción dada al mismo por la Ley 4/1999, de 13 de enero, en los que se regulan las competencias que no pueden ser objeto de delegación.

Horregatik, Alkate honek, legeak aitortzen dizkion eskumenak baliatuta,

Por todo ello, esta Alcaldía, en uso de las atribuciones que legalmente tiene conferidas

**E R A B A K I D U**

**R E S U E L V E**

**LEHENENGO.** Ondoren aitatzen diren zinegotziei euren alorrei dagozkien gaiak kudeatzeko eta erabakiak hartzeko eskumenak **eskuordetzea**, hots, jarraian, azalpen gisa, ezagutzera ematen direnetarako.

**PRIMERO.-** Efectuar a favor de los Concejales que se citan una **delegación general de atribuciones de gestión y resolución** de los asuntos de sus respectivas áreas de actuación y respecto de los campos de actuación que, a título enunciativo, se recogen a continuación en relación con cada una de ellas:

**Hirigintza, Hiri-mantenimendu, Auzoak eta Trafiko eta Garraio arloa.**

**Areas de Urbanismo, Mantenimiento Urbano, Barrios y Tráfico y Transporte.**

**Zinegotzia:** Luis Maria Diez Gabilondo.

**Concejal:** Luis María Díez Gabilondo.

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eraman, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeko ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko eta, bereziki,

Ambito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección de las áreas correspondientes, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación y, en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ondoren adierazten direnetarako:

**Hirigintza arloa:**

- Lizentziak emateko, eraikuntzako obrak egiteko baimenak izan ezik.
- Salbuetsitako jardueren lizentziak edo erabilera aldatzekoak.
- Herribidea okupatzeko lizentziak.
- Planeamenduko batzar eta gainontzeko kudeaketa organoetako ordezkaritza.

**Trafikoa eta Garraio azpiarloa:**

- Herriko trafiko-fluxua aztertu Udaltzainburuarekin batera, eta proposamenak egin.
- Herriko aparkaleku-arazoa aztertu eta proposamenak egin.
- Aparkaleku-mugatua zaintzen duten enpresa-esleipendunekin harremanak izan.
- Trafiko-isunak eta Alkateak azpisailaren eskumenen barruan gomendatzen duen gainontzeko gauzak egin.

**Hiri Mantenimendu arloa:**

- Hiri Mantenimendu arloan Alkatetzaren eskumenak bere gain izango ditu eta Aurrekontua Exekutatzeko Arauaren 13. oinarriak xedatzen duen arabera arlo horretako hainbat aurrekontu-partida burutuko ditu.

**Auzoen arloa:**

- Harremanak eduki dauden edo izan litezkeen auzo elkarteekin, hain zuzen haien antolaketa, ekonomiko edo azpiegitura beharrak, ahal den neurrian, ase ahal izateko.

especial, las que a continuación se indican:

**Área de Urbanismo**

- Licencias urbanísticas a excepción de las licencias de obras de edificación.
- Licencias de actividades exentas o de modificación de su uso.
- Licencias para ocupación de la vía pública.
- Presencia representativa en juntas y demás organismos de gestión de planeamiento.

**Subárea de Tráfico y Transportes**

- Estudio y propuesta de los flujos de tráfico rodado en el municipio contando con la participación del Jefe de la Policía Local.
- Estudio y propuesta de la problemática del aparcamiento en la ciudad.
- Relaciones con las empresas adjudicatarias de los servicios de estacionamiento limitado en el tiempo.
- Sanciones de tráfico y cuantas otras funciones encomiende el Alcalde dentro de las competencias de la subárea.

**Area de Mantenimiento Urbano**

- Asumirá las competencias de la Alcaldía en el Área de Mantenimiento Urbano y la ejecución presupuestaria de las partidas comprendidas en dicha Área conforme a lo que dispone la base 13 de la Norma de Ejecución Presupuestaria.

**Area de Barrios**

- Relaciones con las Asociaciones de Vecinos existentes, o que pudieran crearse en el futuro, a fin de atender en la medida de lo posible a sus necesidades, tanto organizativas como económicas o de infraestructuras.
- Colaboración con dichas asociaciones para que



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Elkarte horiekin harremanak izan, besteak beste, haiek estatutuetan adierazitako xedeak bete ditzaten.

- Auzo Elkarteei diru-laguntzen edo bestelako udal-laguntzen berri eman.

- Auzo Elkarteek Udalari egin diezaieketen iradokizunak edo erreklamazioak aintzat hartu, bereziki herritarren ekimenak.

Adierazitako eginkizunak ez dira zehatz-mehatzak, eta beraz, Alkateak eskuordeturiko eskumenak hobeto osatzeko gomenda diezaienekin osatuko dira.

**Lehendakaritza eta Barne-antolaketa arloa.**

**Zinegotzia:** Miren Alazne Korta Zulaika

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eraman, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeko ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko eta, bereziki, ondoren adierazten direnetarako:

- Alkatetzaren zuzendaritzapean egongo den Udaltzaingoa izan ezik, Udaleko langileria guztiaren buruari dagozkion lanak egin.
- Langile berriak (finkoak edo denboraldikoak) hartzeko proposamenei buruzko informazioa eman.
- Lan-arriskuez prebenitzeko hartu beharreko neurri guztiak hartu.

- Langileriaren lan-egutegiaz eta lanaldiaz informazioa eman Alkateak onartu aurretik.

éstas puedan llevar a cabo sus fines estatutarios.

- Información a las Asociaciones de Vecinos de subvenciones u otro tipo de ayudas municipales.
- Atención de sugerencias o reclamaciones que las Asociaciones de Vecinos pudieran presentar al Ayuntamiento, en particular las iniciativas ciudadanas.

La relación funcional anterior no es exhaustiva y se completará con todas aquellas funciones que le encomiende el Alcalde para el mejor cumplimiento de las competencias delegadas.

**Área: Presidencia y Régimen Interior**

**Concejal:** Miren Alazne Korta Zulaika

Ambito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del área correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación y, en especial, las que a continuación se indican:

- Desempeñar la jefatura directa de todo el personal de la Corporación excepto el cuerpo de la Policía Local que queda bajo la jefatura directa de la Alcaldía.
- Informar las propuestas de necesidad de nuevo personal (fijo o temporal).

- Adoptar cuantas medidas sean precisas para la prevención de los riesgos laborales.
- Informar del calendario y la jornada laboral del personal, con carácter previo a su aprobación por el Alcalde.
- Fijar el plan de vacaciones de acuerdo con la representación sindical.
- La concesión de licencias, permisos y las



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Opor-plana finkatu sindikatu-ordezkaritzarekin ados jarrita.

- Lizentziak, baimenak eta bidezko kalte-ordainak eman.

- Soldata-aurrerapen eskaerei buruzko informazioa eman.
- Lan-diziplina betetzen den ikusi.

- Batzordeburuekin bilerak eta harremanak izan, hala nola zerbitzu ezberdinetako buruekin elkarrekin berri izan eta koordinatzeko.

- Gizarte-ordezkariekin harremanak izan: informazio-kontsultak eta negoziazioak.
- Oro har Alkateak izenda diezaiokeen beste edozein eginkizun, Barne-antolaketa arlokoa barne.

Adierazitako eginkizunak ez dira zehatz-mehatzak, eta beraz, Alkateak eskuordeturiko eskumenak hobeto osatzeko gomenda diezaienekin osatuko dira.

**Kultura eta Hezkuntza arloa.**

**Zinegotzia:** Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi.

Jardun-eremua: Ordezkaritza hau dela eta, ahalmena izango du dagokion arloetako zuzendaritza eraman, kudeaketa egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatzeko, ordezkaritzaren baitan exekutatu beharrekoak exekutatzeko ebazpen-proposamen eta dekretuak egiteko eta, bereziki, ondoren adierazten direnetarako:

- Ordezkariari dagozkion egintza edo ebazpenei buruzko ziurtagiriak, baita departamentuak

correspondientes indemnizaciones.
- Informar sobre las solicitudes de anticipos de salarios.
- Velar por el cumplimiento de la disciplina laboral.
- Mantener reuniones y contactos con los presidentes de las comisiones informativas y con los jefes de los diferentes servicios para información mutua y coordinación.
- Relaciones con los representantes sociales: información consultas y negociaciones.
- En general cualquier otra función que le asigne el Alcalde incluido en el área de Régimen Interior.

La relación funcional anterior no es exhaustiva y se completará con todas aquellas funciones que le encomiende el Alcalde para el mejor cumplimiento de las competencias delegadas.

**Área de Cultura y Educación**

Concejal: Garazi López de Etxezarreta Auzmendi

Ámbito funcional: La delegación comportará tanto la facultad de dirección del área correspondiente, como su gestión, la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y decretos sean necesarios para la ejecución de la citada delegación y, en especial, las que a continuación se indican:

- Certificaciones relativas a actos o resoluciones del delegado así como a los archivos y documentos existentes en el departamento.

La relación funcional anterior no es exhaustiva y se completará con todas aquellas funciones que le encomiende el Alcalde para el mejor cumplimiento de las competencias delegadas.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

artxibatuta egon litezkeen dokumentuena ere.

Adierazitako eginkizunak ez dira zehatz-mehatzak, eta beraz, Alkateak eskuordeturiko eskumenak hobeto osatzeko gomenda diezaienekin osatuko dira.

**BIGARREN. Zerbitzu berezirako eskuordetza** ematea ondorengo zinegotziei.

**SEGUNDO.-** Efectuar a favor de los Concejales que se citan una **delegación de Servicio Específico.**

**Zerbitzu zehatza: Kontratazio-mahaiko buruzagitza**

**Servicio Específico: Presidencia de la Mesa de Contratación**

**Zinegotzia:** Miren Alazne Korta Zulaika

**Concejal:** Miren Alazne Korta Zulaika

Jardun-eremua: Kargu honi dagozkion eginkizunak Udal Araudi Organikoan Kontratazio-mahaiari buruz adierazitakoak dira eta, oro har, indarrean dagoen araudian ezarritakoak.

Ámbito Funcional: El contenido funcional del presente cargo se acomodará a lo dispuesto en el Reglamento Orgánico Municipal en lo referido a la mesa de Contratación y, en general, a lo dispuesto en la normativa vigente.

**HIRUGARREN.** Zinegotziei eginiko eskumen-ordezkaritzak esan nahiko du, eskuordetzea hori burutu ahal izateko egin beharreko guztia egin dezaketela, hau da, arloko zuzendaritza eraman, kudeaketa burutu, dekretuak egin, tramitezko edo behin-betiko dokumentuak sinatu, etab.

**TERCERO.-** La delegación general de competencias a favor de los citados Concejales a la que anteriormente se ha hecho referencia, comportará, tanto la facultad de dirección del Área correspondiente, como su gestión, incluida la firma de cuantos documentos de trámite o definitivos, incluidas las propuestas de resolución y los decretos, sean necesarias para la ejecución de la citada delegación.

**LAUGARREN.** Eskuordeturiko eskumenak eskuordetze honetan adierazitako mugen barruan burutuko dira, hori dutenek ezin izango dutelarik beste organo edo zinegotziren batean eskuordetu.

**CUARTO.-** Las atribuciones delegadas se deberán ejercer en los términos y dentro de los límites de ésta delegación, no siendo susceptibles de ser delegadas por sus titulares en otro órgano o concejal.

Eskuordetza duten zinegotziek harturiko erabakien azalpen-zatian ondorengo testua ipiniko da egoeraren berri ematearren:

En el texto de las resoluciones adoptadas por los Concejales en virtud de esta delegación, se tendrá que hacer constar esta circunstancia,



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

mediante la inclusión en la parte expositiva del siguiente texto:

*"Hori guztiagatik, Udal honetako Alkateak .........e/a/n, ......zk.ko dekretu bidez emaniko eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta".*

*«Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de la delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, mediante Decreto núm....... de fecha........»*

Eskuordetzaren bidez harturiko ebazpenak Alkateak —jatorrizko eskumenaren titularra— emanak bailiran hartuko dira eta, ondorioz, hura jakinaren gainean egonda, exekutagarriak izan eta zilegitasun-presuntzioa izango dute.

Las resoluciones que se adopten por delegación se entenderán dictadas por esta Alcaldía, como titular de la competencia originaria, a quien se tendrá que mantener informado del ejercicio de la delegación, y gozarán, por tanto, de ejecutividad y presunción de legitimidad.

**BOSGARREN.** Eskuordetza hauek Udalbatza eratzen den egunetik aurrera izango dute eragina. Ez dute, beraz, zerikusirik izango aurreko agintaldikoekin. Aitzitik, Udalbatzako partaide berrien izendapena egiten bada, data-egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Edonola ere, behin-behinekotasun izaera izango dute eta Alkateak indargabetzeko eskumena izango du.

**QUINTO.-** Estas delegaciones tendrán efecto desde la fecha de constitución de la actual Corporación sin solución de continuidad con el anterior mandato, a excepción de aquellos nombramientos que recaigan en nuevos miembros de la Corporación, en cuyo caso los efectos serán desde el día de la fecha. En todo caso serán de carácter indefinido, sin perjuicio de la potestad de avocación de esta Alcaldía.

Eskuordetza duten zinegotziak absente, kanpoan edo beste eragozpenen bat izanez gero, Alkateak bereganatuko ditu zuzen-zuzenean eskuordeturiko eskumenak, horretarako ez delarik beharrezkoa izango ebazpen berri bat egitea.

En caso de ausencia, vacante, enfermedad o cualquier otro impedimento de los Concejales delegados, esta Alcaldía asumirá, directa y automáticamente, las competencias delegadas, como titular de la competencia originaria, entendiéndose a estos efectos ejercitada la potestad de avocación en base a la presente resolución, sin necesidad de una nueva resolución expresa en este sentido.

**SEIGARREN.** Erabaki honen berri ematea eskuordeturiko zinegotziei eta jasota eta 24 ordu barruan inork ez balu ezer adieraziko, edo eskuordetza baliatzen bada, onartu duela esan nahiko du.

**SEXTO.-** Notificar esta resolución a los Concejales afectados, entendiéndose aceptada la competencia delegada de forma tácita, si dentro del plazo de las 24 horas siguientes no se manifiesta nada en contra o se hace uso de la delegación.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**ZAZPIGARREN.** Erabaki honen berri ematea Udalbatzak egingo duen lehenengo osoko bilkuran eta testua Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, lehen aitaturiko Legearen 44.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki".

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du oraingo Udalbatzarako ezin izan badute prestatu ere, hurrengorako eskuordetza gehiago ateratzen ari direla. Horrela, aurreratzen du Irune Balenciagak hartuko ditu Euskara eta Berdintasunerako batzordeak, Jose Manuel Ferradasek Ingurumena, Unai Unsuainek Gazteria, Asier Mujikak Ekonomia Garapena, Turismoa, Merkataritza eta ordezkaritza-arloko gai berezia eta Jon Txaskok Gizarte Ongizatea eta Ogasuna.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**6. Alkatetzaren mozioa, Udalbatzaren eskumenak Gobernu Batzarrari eskuordetzeko.**

Alkatetzaren mozioa:

"Hainbat legegintzaldiz gero, bizkor eta eraginkor jardutearren, ohikoa bihurtu da Udalbatzari dagozkion eskumenak Gobernu Batzarraren esku uztea.

Organo delegatuetan titularitate-aldaketa egitea lehengo akordioa indarrik gabe uzteko haineko arrazoi ez izan, Toki-erakundeen antolaketa eta funtzionamenduen araudiaren 114.2 artikuluan jasota dagoenaren arabera, Alkatetza honek bidezkoa ikusten du Udalbatza jazoera horretaz jabetzea eta berori berrestea.

**SEPTIMO.-** Dar cuenta al Pleno de esta resolución en la primera sesión que tenga lugar, y publicar su texto en el Boletín Oficial de la Provincia en cumplimiento de lo dispuesto por el artículo 44.2 del texto legal antes citado".

* El Alcalde, Sr. Mendoza (O.E. BILDU) manifiesta en euskera que si bien no las han podido preparar para este Pleno, en el próximo Pleno darán cuenta de más delegaciones que se están realizando. Adelanta que Irune Balenciaga se responsabilizará de las comisiones de Euskara e Igualdad, José Manuel Ferradás de Medio Ambiente, Unai Unsuain de Juventud, Asier Mujika de Desarrollo Económico, Turismo, Comercio y de un área especifica de representación y Jon Txasko de Bienestar Social y Hacienda.

El Pleno queda enterado.

**6.- Moción de Alcaldía proponiendo delegación de funciones del Pleno a la Junta de Gobierno.**

Vista la siguiente moción de Alcaldía:

"Viene siendo tradición desde hace varias legislaturas que una serie de materias de competencia plenaria se deleguen para su resolución en la Junta de Gobierno por razón de agilidad y eficiencia.

Aún cuando el cambio de titularidad en los órganos delegantes o delegados no es causa de revocación, tal como viene recogido en el artículo 114.2 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales, esta Alcaldía considera conveniente que el Pleno tome razón de este hecho y se ratifique en el mismo.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Bestalde, kontuan izan behar da ordeztu asmo diren gaiak ez daudela Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.4 artikuluan debekatuta daudenen artean, eta beraz, Udalbatzari proposatzen dio hartzeko ondorengo

**E R A B A K I A**

**Lehenengo.** Gobernu Batzarraren esku uztea ondoko gaien inguruan tramitatu beharreko espedienteak bideratzeko eginkizunak:

- Deialdia egitea erabilpen publikoko mendietako egur-aprobetxamenduak esleitzeko, beti ere Aurrekontua Egikaritzeko Oinarrietan ezarritako mugen barruan.

- Onartzea Udalbatzak zerbitzuak edo jarduerak emateko beste erakundeekin lehendik onarturiko lankidetza-hitzarmenen luzamendua.

- Auto-taxien lizentziak eman eta esku-aldatzea.

- Baimenak ematea auto-taxi gisa erabiltzen diren ibilgailuetan publizitatea jartzeko.

- Baimenak ematea auto-taxi gisa erabiltzen diren ibilgailuek zerbitzu espezializatuak egiteko.

- Onartzea herriko gizarte-proiektuak eta programak.

- Onartzea Gizarte Larrialdiko Laguntzak banatzeko irizpideak.

- Udalaren merkatuguneko saltokien emakidak

Considerando, por otra parte, que las materias que comprenden la presente delegación no se hallan incursas en la prohibición contenida en el artículo 22.4 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, por lo que propone al Pleno la adopción del siguiente

***A C U E R D O***

**Primero.-** Delegar en la Junta de Gobierno la resolución de los expedientes tramitados relativos a las siguientes materias:

- Convocatoria de subasta para adjudicación de aprovechamientos de madera en montes de utilidad pública según las cuantías establecidas en las Bases de Ejecución del Prepuesto.

- Aprobación de la prórroga de convenios relativos a la colaboración con otras instituciones, en la prestación de Servicios o Actividades previamente aprobadas por el Pleno.

- Concesión y transmisión de licencias de auto-taxis.

- Autorización para la inserción de publicidad en vehículos destinados a auto-taxi

- Autorización de servicios especializados por parte de vehículos auto-taxi.

- Aprobación de proyectos y programas sociales en el municipio.

- Aprobación de criterios de distribución de las Ayudas de Emergencia Social.

- Concesión, transmisión, rescate y declaración de

eman, eskualdatu, berreskuratu eta iraungitzat jotzea.

- 10 urte arterainoko ondasun-emakidak ematea baldin eta berorren balioak ohiko baliabideen %10 edo 6.010.121 € gainditzen ez badu.

- Abereak Babesteko 6/93 Legean aurreikusitako prozedura-zigortzaileak hasi, tramitatu, ebatzi eta zigorrak ipintzea.

Gobernu Batzarrak hartuko dituen erabakien testuan, delegazioaren baitan eginikoak direla adieraziko da azalpen-zatian ondorengo testua ipinita:

“Udalbatzak ......e/a/n eginiko osoko bilkuran onarturiko eskuordetzen arabera, Gobernu Batzarraren eskumena da ondoko akordioa hartzea”.

Gobernu Batzarrak delegazio honen baitan hartuko dituen erabakiek Udalbatzak berak bete beharko lituzkeen prozedurak bete beharko dituzte.

**Bigarren.** Erabaki honen berri ematea dagokion organoari eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eraginkorra izan dadin”.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du eskualdaketa hauek aurreko legegintzaldietan beti egin izan direla. Eurek, bidezkoak iruditzen zitzaizkienez, gauza bera proposatzen dute.

Mintzaldia amaitutakoan.

